


# INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa **2021**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# INGURUMEN IKUSKAPEN KONTROLERAKO PROGRAMA

## ETA

Data

Martxoa 2021

Jabea

Eusko Jaurlaritza.



 **euskadi.eus**

[www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa



<b>1. SARRERA .....</b>	<b>2</b>
<b>2. 2021EKO PROGRAMAREN HELBURUAK .....</b>	<b>2</b>
2.1.- 2021EKO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK .....	4
2.2.- 2021EKO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: HELBURU ESPEZIFIKOAK ETA JOMUGAK .....	6
2.2.1.- 2021/01 proiektua: IPPC jardueren jarraipena ikuskatzea .....	6
2.2.2.- 2021/06 proiektua: Etengabe Emisioak Neurtzeko Sistemak (EENS) kontrolatzea IPPC instalazioetan .....	8
2.2.3.- 2021/04 proiektua: ingurumen-erantzukizuna .....	8
2.2.4.- 2021/10 proiektua: Zabortegietako hondakinen mugen kontrola .....	9
2.2.5.- 2021/02 proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua .....	10
2.2.6.- 2021/03 proiektua: Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE) ikuskatzea .....	11
2.2.7.- 2021/05 proiektua: Hondakinen lekualdaketa .....	12
2.2.8.- 2021/08 proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean .....	14
2.2.9.- 2021/07 proiektua: Airearen kalitatea. EAeko metalen maila kontrolatzea .....	14
2.2.10.- 2021/09 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa .....	16
<b>3. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA .....</b>	<b>17</b>
<b>4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA .....</b>	<b>17</b>
<b>5. KONTROL-PLANA .....</b>	<b>18</b>
<b>6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA .....</b>	<b>18</b>
<b>7. INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA .....</b>	<b>18</b>

## 1. SARRERA

Programa honek 2021ean garatuko diren Ingurumen-ikuskapeneko proiektuak zehaztea du xede, hartara betetzeko bai Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Plana —Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Ingurumen Sailburuordetzak egina—, baita arlo horretako indarreko araudia ere. Horretarako, Planaren helburu estrategikoak aintzat hartuko dituzte 2021ean garatuko diren proiektuek, eta haien oinarritzko agirietan jasoko dira xehetasun operatiboak, jarduera-plana eta jarraipena. Programa horrek, funtsean, proiektuen helburuak eta jomugak jasotzen ditu baita helburu estrategikoekin duen lotura ere.

Alde horretatik, eskumeneko organoek emandako jarraibide guztiak aztertuko dira ikuskatze-jarduerak garatzeari dagokionez; geroago, aipatutako araudiaren inpaktua balioetsi beharko da, baita adierazitako helburuak betetzeko Estatuko eta autonomietako eskumeneko organo guztiek emandako jarraibideak ere.

## 2. 2021eko PROGRAMAREN HELBURUAK

2021eko Ikuskapen eta Kontrolerako Programa funtsezko zutabe hauetan dago oinarrituta:

- a) **IPPC ekintzen jarraipena egiteko ikuskapenak**<sup>1</sup>. Ikuskapen horien helburua da IPPC enpresek ingurumen-araudia eta -kudeaketa neurri jakin batean bete ditzaten sustatzea.
- b) **IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea**. Ikuskapen horien helburua da IPPC ez diren enpresek ingurumen-araudia eta -kudeaketa neurri jakin batean bete ditzaten sustatzea, arreta berezia jarrita ingurumenean kalte esanguratsua eragin dezaketen alderdietan.
- c) **Emisioak Etengabe Neurtzeko Sistemak (EENS)**. Proiektua lantzen jarraituko da, denboran barrena operadoreek betetze-maila optimoa lortzen dutela ziurtatzeko jaso dituzten baimenetan zehaztutako baldintzei eta Ingurumen Sailburuordetzak EENSei buruz argitaratutako jarraibide teknikoei begira.
- d) **Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILEak)**. Atmosferara egindako emisioen eta zarataren kontrolen kalitatea eta adierazgarritasuna bermatzeko, atmosferara egindako emisioak kontrolatzeko ikuskapenak mantenduko zaizkie 2021ean kontrol ofizial gehien egiten dituzten Ingurumen Lankidetzako Erakundeei, eta zarataren eremuan lan egiten dutenen kontrol-ikuskapenaren

---

<sup>1</sup> Abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren esparruko jarduerak. Dekretu horren bidez, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko Legearen testu bategina onartu zen.

prozedura ezarriko da. Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa eguneratzen jarraituko da, EAEn lan egiten duten ILEak erregistratuta daudela ziurtatzeko.

- e) **Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legea.** Proiektu honen helburua da beharrezkoak diren kontrolak ezartzea eta egitea operadoreek Ingurumen Erantzukizunari buruzko Legetik eratorritako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko.
- f) **Hondakinak mugaz haraindi lekualdatzea eta hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko jarduerak kontrolatzea.** Alde batetik, hondakinen mugaz haraindiko lekualdatzeak kontrolatzeko proiektu espezifikoak gauzatzen jarraituko da, eta lehentasunezko eremutzat hartuko dira hondakinak Europar Batasunetik sartzeko eta Europar Batasunera ateratzeko puntuak, lekualdatzeak, operadoreak eta beste administrazio batzuetako komunikazioak. Beste alde batetik, hondakinak deuseztatzeako jardueren kontrol espezifikoak egingo da EAEko hondakin ez-arriskutsu baimenduen zabortegei aktiboetan.
- g) **Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.** 2021ean, hiru proiektu gauzatuko dira ingurumeneko arazoak konpontzeko edo arintzeko xedez:
- Ziurtatzea kutsatzaile metalikoen emisioak sor ditzaketen jarduerak ez direla kaltegarri 102/2011 Errege Dekretuan jasotako kutsatzaileen gaineko kalitate-helburuak betetzeko.
  - Jarduerak amaitutakoan, hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduera horiekin lotutako ingurumen-arriskua kontuan hartuta.
  - Abisuak eta programatu gabeko ikuskapenak kudeatzea, kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin lotuta. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, informazioa jaso eta egoera noiznahi ebaluatu ahal izateko, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak gutxitzeko komeni diren jarduerak hasteko ere.

## 2.1.- 2021eko helburu estrategikoak eta proiektuak

Ondorengo taulan, Ikuskapen eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoen barruan 2021eko ekitaldirako programatutako proiektuak daude jasota.

Planaren jarduketa-ildo estrategikoak (4.3 apartatua)	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	HELBURUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
1/2016 LEDen mendeko enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea	2021/01	IPPC jardueren jarraipena ikuskatzea	<p>Arrisku-ebaluazioaren emaitzen arabera programatutako ikuskapenak egitea.</p> <p>Jarraipen espezifikoa egitea betetze-maila baxuena duten enpresei, ingurumenean gehien eragiten dutenei edo arrisku handiena dutenei.</p> <p>IPPC jarduera berriak ikuskatzea, abian jartzen direnetik urtebetera.</p>
	2021/04	Ingurumen-erantzukizuna	Behar diren kontrolak ezartzea, garatzea, eta jarduerak artikulatzea operadoreen betebeharren betetze-maila bermatzeko finantza-bermea eratzeari dagokionez.
	2021/06	Etengabe Emisioak Neurtzeko Sistemak (EENS)	<p>Ingurumen Sailburuordetzak jasotako datuen kalitatea ziurtatzea.</p> <p>Zehaztea zenbateraino betetzen Emisioak Etengabe Neurtzeko Sistemak (EENS) dituzten operadoreek</p>
	2021/10	Zabortegetako hondakinen mugen kontrola	Ziurtatzea Agindua betetzen dela, haren bidez aldi baterako urgentziatzko neurriak ezartzen baitzaizkie hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile eta ekoizle jakin batzuei.

Planaren jarduketako-ildo estrategikoak (4.3 apartatua)	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	HELBURUAREN DESKRIBAPEN LABURRA
Arrisku handieneko kutsadurari buruzko 1/2016 LEDen mendeako EZ diren enpresek Ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea	2021/02	IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea	IPPC ez diren jarduera multzo berriak ikuskatzea. Ingurumen-araudiaren betetze-maila ziurtatzea. Aurreko urtean ikuskatutako enpresen betetze-maila areagotzea, betetze-maila handia edo ertain-handia izan dezaten
	2021/03	ILEak ikuskatzea	Ziurtatzea ILEek aplikatu beharreko araudia betetzen dutela eta beraien kontrolak adierazgarriak direla.
Hondakinen mugaz haraindiko lekualdatzeari buruzko araudia betetzen dela bermatzea	2021/05	Hondakinen lekualdaketa	Batasuneko hondakinen sarrera-/irteera-puntuak, lekualdatzeak eta operadoreak ikuskatzea.
EAEko industria-jarduerari lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea	2021/07	Airearen kalitatea. EAEko metalen maila kontrolatzea.	Ziurtatzea kutsatzaile metalikoen emisioak sor ditzaketen jarduerak ez dutela laguntzen kalitateko helburuak ez betetzen.
	2021/08	Hondakinak eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea	2021/09	Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	Urteko 365 egunetan, 24 orduko erantzun-zerbitzua, gorabeheretan eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko. Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea Larrialdi Planen eta taktika operatiboan aurrean



Proiektu guztiak dokumentu batean egiten dira, egitura honekin:

1. Aurrekariak
2. Proiektu mota
3. Helburuak eta jomugak
4. Jarduketa-plana
5. Adierazleak
6. Jarraipena
7. Errekurtsoak
8. Kronograma
9. Txostenen zerrenda

**2.2.- 2021eko ikuskapen-proiektuak: helburu espezifikoak eta jomugak.**

Jarraian, proiektuen helburu espezifikoak eta jomugak zehazten dira, Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planaren ildo estrategiko bakoitzaren barruan.

*Helburua: 1/2016 LEDen mendeko enpresek ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea*

**2.2.1.- 2021/01 proiektua: IPPC jardueren jarraipena ikuskatzea**

IPPC araudiaren aplikazio-eremuan dauden instalazioek ikuskapen-plan bat eduki behar dute, hala xedatzen baita bai Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2010eko azaroaren 24an emisio industrialei buruz onartutako 2010/75/EB Zuzentarauaren 23. artikuluan (Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuaren Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez ekarri zen gure ordenamendu juridikora) bai 815/2013 Errege Dekretuan.

Oinarriztat hartuz Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Plana, ikuskapen-programak egiten dira, zeinek instalazioetara egingo diren bisiten maiztasuna barne hartzen duten. Bisita-maiztasun hori arriskuak ebaluatzeko prozeduraren arabera antolatzen da. Arriskuak ebaluatzeko prozedura Ingurumen Sailburuordetzaren webgunean argitaratuta dago, programatutako eta programatu gabeko ikuskapen-prozedurekin batera.

2021ean, honako enpresa hauek ikuskatuko dira: urtebeteko maiztasuna ezarrita daukaten 36 enpresa, bi urteko maiztasuna ezarrita daukaten 58 enpresa, hiru urteko maiztasuna ezarrita daukaten 36 enpresa eta aurrez aldizkakotasunik zehaztuta ez duten 5 enpresa. Orotara, 135 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua. Ikuskatu behar diren instalazio horiek Exceleko kontrol-dokumentu batean daude jasota, proiektuaren barruan.

Puntu honetan adierazi behar da IPPC 2021 jarraipen-ikuskapenaren proiektuaren barruan hondakinak ezabatzeko instalazioen % 70 ikuskatzea programatuta dagoela.

Azkenik, proiektua gauzatu bitartean, ikuskapen batean nabarmen egiaztatzen bada ingurumen-baimen integratuaren baldintzak ez dituztela betetzen, abenduaren 16ko 1/2016 LEDen aurreikusitako zehapen-araubidea alde batera utzi gabe, sei hilabeteko gehieneko epearen barruan, beste bisita bat egingo da instalaziora.



#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- 🌿 IPPC enpresek ingurumen-araudiaren betetze-maila hobetzea.
- 🌿 Sailkatutako desbideratze larriak eta esanguratsuak zuzentzea sei hilabeteko epean gehienez, eta bermatzea ez dadila egon betetze-maila txikia edo txiki-ertaina duen jarduerarik.
- 🌿 Herritarrengan edo ingurumenean eragozpenak edo arriskuak sor ditzaketen IPPC jarduerak kontrolatzea.
- 🌿 IPPC berriei ikuskapena egitea, abian jartzen direnetik edo Ingurumen Baimen Bateratua (IBB) lortzen dutenetik urtebete igaro baino lehen.

### 2.2.2.- 2021/06 proiektua: Etengabe Emisioak Neurtzeko Sistemak (EENS) kontrolatzea IPPC instalazioetan

Egiaztatzen jarraitzea operadoreek egoki betetzen dituztela baimenetan jasotako baldintzak eta Ingurumen Sailburuordetzak EENSEi buruz argitaratutako Jarraibide Teknikoak, eta ziurtatzea Ingurumen Sailburuordetzan jasotzen diren datuek behar bezalako kalitatea dutela. Kutsaduraren eta airearen prebentzio eta kontrol bateratuko administrazio-unitateetako teknikariek batera lan eginez gauzatzen da proiektua hau.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

-  Ingurumen Sailburuordetzak jasotako datuen kalitatea ziurtatzea eta barne-prozedurak eratzea EENSEn baimenean, jarraipenean eta kontrolean inplikaturako Administrazio Unitateen artean.
-  Aztertzen jarraitzea enpresek zenbateraino betetzen dituzten IBBk ezartzen dituen eskakizunak EENSEkin neurtutako parametroetarako.

### 2.2.3.- 2021/04 proiektua: ingurumen-erantzukizuna

Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen 24. artikulua ezartzen du lege horren III. eranskinean sartuta dauden jardueren operadoreek nahitazko berme finantzarioa eratu beharko dutela. Era berean, ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Agindua lehentasun-hurrenkera eta egutegia ezartzen ditu Ministerioaren agindua onartzeko; orduetik, nahitazko berme finantzarioa eratzea eskatuko da.

2017ko urriaren 30ean, APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan —ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuak— nahitazko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipaturako agindu horren eranskina aldatzen duena.

1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jardueren finantza-berme bat eduki behar dute beren jardueren gaineko ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko, eta APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik urtebeteko epean lortu beharko dute bermea hori; hots, 2018ko urriaren 31rako. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jardueren bi urteko epean eduki beharko dute finantza-berme hori; hau da, 2019ko urriaren 31rako.

2019ko urriaren 15ean, urriaren 10eko TEC/1023/2019 Agindua argitaratu zen, zeinetan ezartzen baita noiztik aurrera eskatu ahal izango zaien nahitazko finantza-bermea Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueren —ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 3. lehentasun-mailakotzat sailkatuak—.

Zehazki, 3. lehentasun-mailako jarduerak 2021eko urriaren 16tik aurrera eduki beharko dute beren jarduera edo jardueretako ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko bermea; salbuespen dira eskortako hegaztien edo txerrien hazkuntza intentsiboko jarduerak. Horiek 2022ko urriaren 16tik aurrera eduki beharko baitute nahitaezko finantza-bermea.

Ezarritako sistematikari jarraituz, 2021. urtean egiaztatuko da behartuta dauden 3. lehentasun-mailako operadoreek erantzukizunpeko adierazpena (EA) aurkeztu dutela 2021eko urriaren 16a baino lehen. Bestalde, 3. lehentasun-mailako operadoreek aurkeztutako dokumentazioaren egiaztapen formala egingo da, baita arrisku-azterketak berrikusi dituzten 1. eta 2. lehentasun-mailako operadoreek aurkeztutako adierazpenena ere. Azkenik, egiaztatuko da arauz onartutako metodologia betetzen dela zabortegietako operadoreek aurkeztutako 18 arrisku-azterketetan gutxienez.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- Behar diren kontrolak ezartzea, garatzea eta jarduerak artikulatzea operadoreen betebeharren betetze-maila bermatzeko finantza-bermea eratzeari dagokionez.
- Egiaztatzea zenbateraino betetzen den arauz onartutako metodologia hondakinak deuseztatzeko operadoreek aurkeztutako 18 arrisku-azterketetan gutxienez.

#### 2.2.4.- 2021/10 proiektua: Zabortegietako hondakinen mugen kontrola

Joan den martxoaren 13an 2020ko martxoaren 4ko AGINDUA, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, argitaratu zen EHAAn. Agindu horren bidez aldi baterako premiazko neurriak ezartzen zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin ez-arriskutsuen kudeatzaile eta ekoizle jakin batzuei, Bizkaiko Zaldibarko udal-mugartean, Verter Recycling 2002 SL enpresaren titulartasuneko den hondakin ez-arriskutsuen zabortegian izandako gertakari larriaren ondorioz.

Aipatutako aginduan, EAeko zabortegi baimenduen titularrei eta ustiatzaileei neurri murriztaileak ezartzen zaizkie beste eremu geografiko batzuetatik datozen hondakinatarako: altzairugintzako zepa zuriak eta beltzak; EEHak (eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak); hiriko hondakin-uren araztegiko lohiak (HUA) (EHZ kodea: 190805), kraft orearen ekoizpeneko kareharrizko lohiak; burdinazko galdaketako hareak eta xehekiak, eta ibilgailuen zatiketaren frakzio arina.

Bestalde, 2020ko martxoaren 4ko Aginduaren indarraldia aldatzen eta luzatzen duen AGINDUA argitaratu zen 2021ko martxoaren 12ko EHAAn

Kontuan hartuta instalazio mota horiek ingurumenean duten eragina eta hondakinen deuseztapena optimizatzeko gauzatutako jarduerak, lehen aipatutako aginduan ezarritako isurtze-muga betetzen dela ziurtatzeko lanean jarraituko da, aipatutako hondakinak balorizatzeko lanak maximizatzeko.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- Behar diren kontrolak ezartzea, bermatzeko hondakinak ezabatzeko eta balorizatzeko jarduerak 2021ko martxoaren 3ko Aginduan ezarritakoaren arabera egiten direla.

*Helburua: Arrisku handieneko kutsadurari buruzko 1/2016 LEDen mendeko enpresek Ingurumen-araudia betetzen dutela bermatzea.*

#### **2.2.5.- 2021/02 proiektua: IPPC ez diren jardueren ikuskapen programatua**

Aurreko urtean ezarritako sistematikarekin jarraitzeko, IPPC ez diren eta hasiera batean kutsatzeko ahalmen handia izan dezaketen jarduerak ikuskatzen jarraitzen da. Hala, aurreikusi da 200 ikuskapen egitea operadoreetan. Aldi berean, aurreko ekitaldiko ikuskatzeetatik ateratako datuak ustiatuko dira, eta jarraipena egingo da eskaera egin duten eta betetze-maila duten enpresa guztietan.

Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta ezabatzea arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren arabera (17. artikulua eta VI. eranskina), eskatzen da aldizkako ikuskapenak egitea hirurteko gutxieneko aldizkakotasunarekin. 2021. urtean, IPPC ez diren baimendutako zabortegeiak ikuskatzen jarraituko da, aipatutako Errege Dekretuan ezarritako eskakizuna betetzeko.

Proiektu hau hainbat urtetarako da, eta 2014an hasi zen jardunean. Unitatean eskuragarri dauden baliabideen arabera, Ikuskapen Zerbitzuko langileek ikuskatuko dituzte proiektu honekin lotutako zenbait jarduera, eta, gainerakoetan, Laguntza Teknikoaren babesa izango dute.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- IPPCC ez diren enpresetan, 2021ean ikuskatutako % 95ek maila ertainean, ertain-handian edo handian betetzeko araudia.
- IPPCC ez diren enpresetatik 2020an ikuskatutakoetan, % 10era mugatzea egindako jarraipenaren ostean betetze-maila ertaina izan dutenei.

#### **2.2.6.- 2021/03 proiektua: Ingurumen Lankidetzako Erakundeak (ILE) ikuskatzea**

2012an, 212/2012 Dekretuaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) Erregistroa sortu zuen Ingurumen Sailburuordetzak. Hain zuzen ere, berak kudeatzen du erregistro hori, eta hura mantentzeko eta eguneratu dadin eskatzeko ahalmena du EAEko jardun-esparrurako.

Bestalde, 2014az geroztik, Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren kontrol-eremuan, Ingurumen Lankidetzako Erakundeen (ILE) jardueren ikuskapenak egin dira, ILEek kontrolen adierazgarritasuna eta aplikaziozko arautegia betetzen dituztela egiaztatzeko xedez.

Denbora horretan, ikuskapenean laguntzeko dokumentazioa landu da; hori dira, besteak beste, emisioak kontrolatzeko betekizun orokorren ikuskapen-gidak eta Kutsatzaileen fitxak, hautariko gehienek (partikulak, errekontzatzak, SO<sub>2</sub>, metalak, merkurioa, NO<sub>x</sub>, COT, HF) neurketa-arauak eta ikuskapen-prozedurak zehazteko.

Beharrezkotzat hartzen da ILEak ikuskatzen jarraitzea 2021ean Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren kontrol-eremuan eta Ingurumen Lankidetzako Erakundeen Erregistroa eguneratzen jarraitzea, EAEn lan egiten duen

edozein ILE erregistratuta dagoela ziurtatzeko. Azkenik, 2021. urtean, Zaratzen eta Dardaren kontrolean jarduten duten ILEentzat programaturako kontrola handituko da ikuskapen-prozedura zehatzak prestatuz.

Helburu espezifikoak eta jomugak:

- 🌱 ILEek fokua neurtzeko ezarritako araudia betetzen dutela ziurtatzea, eta, horretarako, bost ikuskapen egitea.
- 🌱 ILEen kontrolen adierazgarritasuna egiaztatzea, bereziki airearen ingurumen-bektorean arazoak dituzten jardueretan.
- 🌱 Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa eguneratuta edukitzea, EAEn lan egiten duen edozein ILE erregistratuta dagoela ziurtatzeko.

*Helburua: Mugaz haraindiko hondakinaren lekualdatzeari buruzko araudia betetzen dela bermatzea.*

### 2.2.7.- 2021/05 proiektua: Hondakinaren lekualdaketa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 660/2014 Erregelamenduaren bidez 1013/2006 Erregelamendua (EB) aldatu zen, eta, hartan ezartzen denez, estatu kideek mugaz haraindiko hondakinak lekualdatzeko prozedura ikuskatzeko plan bat edo gehiago eduki behar dituzten, 2017ko urtarrilaren 1erako beranduenez. Plan horietan jaso behar dira ikuskapenetan parte hartuko duen agintaritza bakoitzari esleitutako zereginak, besteak beste.

Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planak, helburu estrategikoen artean, jasota ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko ekainaren 14an hondakinak lekualdatzeari buruzko 1013/2006 Erregelamenduaren (EE) 50. artikulua betetzen jarraitzea, 660/2014 Erregelamenduan (EB) agindu bezala, zeinek ezartzen baitu estatu kideek berariaz bermatuko dutela haien lurralde geografiko osoan plan bat edo gehiago ezarrita dutela beranduenez 2017ko urtarrilaren 1ean, hala nola plan modura edo beste plan batzuen barruan txertatuta, horien bidez hondakinak lekualdatzeko eta balorizatze edo ezabatze prozesuak ikuskatzeko.

Bestalde, aipatutako 660/2014 Erregelamenduak (EB) ezartzen du ikuskapen-planak arrisku-ebaluazio batean oinarrituko direla eta ebaluazio horren helburua izango dela, besteak beste, eskatuko diren ikuskapenen gutxienerako kopurua zehaztea, establezimendu, enpresa, negoziatzaile eta hondakinen lekualdatzeetako dagokien balorizazio edo ezabaketako kontrol fisikoak barne.

Aurreko urteetan ezarritako sistematikari jarraituz, hondakinak mugaz haraindi lekualdatzeko prozesuak modu programatuan ikuskatzen jarraitzen da.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

- Ikuskapen programatuak EBko estatu kideetatik edo estatu kideetara hondakinak inportatzen/esportatzen dituzten operadoreetan. 9 ikuskapen egingo zaizkie operadoreei.
- Ikuskapen programatua portuetan. Portuen ikuskapenak egingo dira, Aduanak gure laguntza eskatzen badu eta/edo Nekazaritza, Arrantza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioak (MITECO) proposatutako Kudeaketa Aginduak, behin sinatuta, horrela jasotzen badu.
- Ikuskapen programatua errepideetan. Hondakinak tokiz aldatzeari dagokionez, ikuskapenak antolatuko dira errepideetan, eskuragarri dauden baliabideen arabera.
- Legez kontrako lekualdaketa azaleratzea. Hondakinak mugaz haraindi lekualdatzeko planak modu programatuan ikuskatzeko prozedura orokorra aplikatzen jarraituko da beste proiektu batzuen ikuskapenetan, hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreak identifikatzeko.
- Hondakinak lekualdatzen dituzten operadoreei buruzko informazioa biltzeko prozedura betetzen jarraituko da.

***Helburua: EAEko industria-jarduerei lotutako ingurumen-arazoak konpontzen edo kontrolatzen laguntzea***

Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planaren ildo estrategiko hori Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzea xede duen kudeaketara hobetuen egokitzen den helburuetako bat da, batez ere industria-jarduerek ingurumen-arazoetan daukaten eragina esanguratsua denean, gizarte- eta ingurumen-arloko gatazkak ere kontuan hartuta. Badira






urte batzuk helburu hori betetzen ari dela, eta emaitza ona izan du. 2021ean, aurreko urteetan hasitako proiektuekin jarraituko da.

Jarraian, helburu estrategiko honekin lotutako proiektuetarako helburu espezifikoak eta jomugak zehazten dira.

### **2.2.8.- 2021/08 proiektua: Hondakinak eta lehengaiak kudeatzea, jarduerak eten ostean.**

Jarduerak etetearekin lotutako ingurumen-arriskua kontuan hartuta, aurreko ekitaldietan bezala, proiektu hau egiten jarraituko da. Konkurtso-prozedurak eragiten dituzten etete-kasu gehienen egoera juridiko berezia dela-eta, Sailburuordetzak arriskuaren kudeaketa sustatzeko egiten dituen jardueren bidez ez da beti arrakasta berdina lortzen.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak

-  Behin-behinean edo behin betiko eten diren jardueren ingurumen-arriskua identifikatzeko eta kontrolatzeko sistematika mantentzea eta optimizatzea.
-  Lurra, ura edo airea kutsatzeko ingurumen-arriskua murriztea, arrazoi ekonomikoen ondorioz jarduera eten duten edo konkurtso-prozesu batean dauden edo egon daitezkeen instalazioetan eta arrazoi ekonomikoak ez diren beste arrazoi batzuegatik haien jarduera behin-behinean edo behin betiko eten duten instalazioetan.
-  Industria-jarduerak eten ondoren instalazioetan geratzen diren hondakinak eta lehengaiak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzea.

### **2.2.9.- 2021/07 proiektua: Airearen kalitatea. EAEko metalen maila kontrolatzea.**

Urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretuak —airearen kalitatea hobetzeari buruzkoa bera— esparru juridiko bat ezartzen du airearen kalitate-helburuak finkatzeko eta zehaztutako balioak gainditzen dituzten eremuetan aplikatu beharreko neurriak xedatzeko.

Azken urte hauetan, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak airearen kalitatearekin lotutako hainbat arazo zehatzi ekin dio. Arazo horiek direla-eta, produkzio-prozesu jakin batzuk sakon aztertu behar izan dira.

Egindako azterlan horietako baten ondorioari esker, ikusi genituen altzairu herdoilgaitza lantzen duten zenbait mekanizazio-enpresaren prozesu jakin batzuetan kutsatzaile metalikoak isurtzen dituztela eta isuri horiek araudian ezarritako airearen kalitatearen helburuak gainditu ditzaketela.

Zehazki, proiektu honek aurreko helburuari eusten dio, hau da: metalen emisio-iturri zehatzak identifikatzea, iturrien ekarpena kalkulatzea eta ad hoc ekintza-planak hartzea identifikatutako iturri bakoitzean, beharrezkoa izanez gero.

#### Helburu espezifikoak eta jomugak:

- Identifikatzea zer jardueraren ondorioz sor daitezkeen 102/2011 Errege Dekretuan zehaztutako kalitate-helburuak gainditzen dituzten kutsatzaile metalikoen emisioak.
- Ziurtatzea identifikatutako industria-jardueren emisioak 102/2011 Errege Dekretuan jasotako kutsatzaileen kalitate-helburuen barruan direla.




***Helburua: Ingurumenean eragina duten gertaerei eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea.***

Hainbat urtetako proiektua da helburu estrategiko hori. Proiektuaren garapena honako hau erdiestera bideratuta dago: ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera. Horretarako, bi enpresa teknikoren laguntza izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren Ikuskapen Zerbitzuaren jarraibideen arabera, eta bitarteko eta baliabide egokiak dituzte abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, haietan sortutako hondakinak kudea ditzakete. Enpresa jarduleei ILE I. maila emango zaie, bat etorrita urriaren 16ko 212/2012 Dekretuarekin, zeinek ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen baititu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen baitu Administrazioak kontratatutako jardueretarako.

### 2.2.10.- 2021/09 proiektua: Abisuen eta programatu gabeko ikuskapenen kudeaketa

Araudia betetzen doan heinean, gero eta garrantzitsuagoa da salaketetatik datozen abisuei, SOS-DEIAK-en abisuei, gertakariei, istripuei eta abarrei ematen zaien erantzuna; izan ere, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira funtzionamendu-egoera anomaloetatik sortutako ingurumen-kalteak.



#### Helburu espezifikoak eta jomugak

-  Erantzuna antolatzea, eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, gertaera eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko.
-  Ikuskapen-zerbitzuak larrialdien eta taktika operatiboen planetarako erantzuna antolatzea.
-  Tartean dauden sailekin koordinazioa hobetzea.

***Helburua: Zerbitzuaren ikuskatzeko gaitasuna handitzea.***

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, garrantzitsuena da eragin biderkatzailea sortzea, ikuskapen-ahalmena optimizatzeko. Horretarako, eskura dauden giza baliabideak eta baliabide materialak behar bezala kudeatuko dira, eta Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak ikuskapenaren osagarri eta laguntza gisa erabiliko dira.

Jarraian, eremu honetako zenbait jarduera-ildo azaltzen dira:

-  Airearen kalitatea zaintzeko eta kontrolatzeko sarearen baliabideetan oinarritzea, airearen kalitatearekin eta emisioekin lotutako egoera analitikoki ezaugarritzeko. GC/MSek detektatutako osagai organikoak interpretatzeko irizpideak ezartzea.
-  Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak betez.

*Helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea, helburuei, estrategiari zein irizpideei dagokienez.*

Helburu honen xedea da Ikuskapen Zerbitzuko jarduerak Estatuko nahiz Europako testuingurura egokitzea, ikuskapenarekin lotutako fase guztietan parte hartzeko: araudia egiteko hasi eta ikuskapenak egiteko irizpideetara. Horretarako, elkarrekin lan egin eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola: REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

### 3. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.

2021. urtean, Ikuskapen Zerbitzuan egitura hau dago: zerbitzuburu bat, 8 ikuskapen-teknikari, aholkularitza juridikoa eta laguntza administratiboa. Bi ikuskapen-teknikari Bizkaian daude (Bilbon dute bulegoa), beste bi Gipuzkoan (Donostian dute bulegoa) eta beste lau Araban (Gasteizen dute bulegoa, Lakuan).

Eskura daude baliabideetara egokituta daude programatutako jarduerak, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere lan horietarako konpetentzia teknikoa ziurtatzeko.

Ikuskapen-programaren helburuak betetzeko estrategia gisa eta Ingurumen Ikuskapen eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planetik ateratako gidalerroekin bat etorriz, aurreikusi da kanpoko laguntza teknikoa kontratatzea 2021. urteko ikuskapen-programan jasotako jarduera batzuekin laguntzeko.

### 4. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.

2018az geroztik, elektronikoki kudeatu eta izapidetu dira Ikuskapen Zerbitzuari lotutako ia administrazio-prozedura guztiak. Ikuskapen-txostenak elektronikoki artxibatuta daude Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Sistema Orokorrean, ezarritako irizpideen arabera.

Arlo horretako 2021erako jarduerak ondorengo oinarriak izango dituzte:

- 🇪🇺 Ikuskapen-prozedura administratiboak zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea xede duen INGURUNET Ingurumen Kudeaketaren Informazio Sistema berrian sartzea, legezotasuna kontrolatzea eta hari jarraipena egitea.

- Ikuskapenari lotutako datuen kontsulta eta ustiapena hobetzen jarraitzea, baita Sailburuordetzako beste administrazio-unitate batzuen erabiltzaileen irisgarritasuna ere.
- Jendaurrean jartzea ikuskapenen arloko programak, memoriak eta txostenak, Eusko Jaurlaritzaren webgune ofizialaren bidez.

## 5. KONTROL-PLANA.

Kontrolari dagokionez, beste urteetako esperientzian oinarrituta, ILEen laguntza teknikoa mantenduko da IPPC ez diren jardueren araudia eta baimenak betetzen direla egiaztatzeko. Emisioak kontrolatzeari dagokionez, ILEen arauzko kontrolei jarraipena egitea planteatu da, IPPC diren edo ez diren jardueren ikuskapen-proiektuen lehentasunak oinarri hartuta.

## 6. INGURUMEN-ARAUDIA ETA -DIZIPLINA.

Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2019-2026 aldirako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea eta ingurumen-diziplina aplikatzea ikuskapenetatik eratorritako espedienteak kudeatzeko.

## 7. INGURUMEN IKUSKAPEN ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.

Proiektu bakoitzean egikaritze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, beraien jarraipena egiteko. Oinarrizko irizpide gisa, aurten proiektuen jarraipena gutxienez sei hilean behin egitea planteatu da.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa hau guztiz garatzeko. Horregatik, lehentasun handieneko proiektuekin hastea proposatu da, eta gainerakoak eskura dauden baliabideen arabera garatzea.

Barneko segimenduari esker, Programaren garapena doitu ahal izango da, lehentasuna emanez ingurumenaren ikuspegitik garrantzi edo arrisku handiena dutenei. Jarraipen hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek parte hartuko dute.